

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2026ko apirilak 30 ean egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

BERTATIK ELIKATUZ LANERATZE ENPRESAREN EGITASMOARI DIRU-LAGUNTZA EMATEKO LANKIDETZA HITZARMENA BERRITZEA (2026. urtea).

Ikusita, 2026ko otsailaren 23an justifikaziorako dokumentazioa aurkeztu dutela, eta hau ontzat eman dela.

Ikusita, aipatutako HITZARMENAREN indarraldia 2026ko abenduaren 31 artekoa dela.
Kontuan hartu da Tokiko garapen batzordeak 2026ko apirilaren 30ean gehiengoz emandako irizpena

Horiek horrela **Tokiko Gobernu batzarrak gehiengoz erabaki du**

Lehena.- Hernaniko Udala eta Bertatik Elikatuz laneratze enpresaren arteko diru-laguntza hitzarmena berritzea.

Onuraduna: Bertatik Elikatuz laneratze enpresa.

Diru Kopurua: 50.000 €

Aurrekontuko partida: 1.1510.471.03.439.00 2026 Kopurua: 50.000,- (AD-472/2026).

Horren berri ematen dizugu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakezu Donostiako administrazioarekiko auzien epaitegian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeko 114.c) artikuluekin bat etorritik

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hori guztia aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dizkiozun egintza edo errekurtsoak aurkezteari ezertan galderazi gabe

Patxi Lapatza-Gortazar Bengoa
Hernaniko bitarteko Udal Idazkaria
Hernanin 2026ko maiatzaren 08an

Jakinarazpen hau elektronikoki sinaturik dago: egiazkotasuna eta osotasuna egiazta dezakezu azpiko QR kodea edo egoitza elektronikoaren bitartez

Gudarien plaza 1 – Tel. 943 337 000 – Fax 943 55 26 96 – e-mail: hhz@hernani.eus

